

Maddi Sanz Sánchez

HARPA JOTZEN, BETI



"HORI NAHI DUT"

"Hasiera ez dut oso ongi oroitzen. Hainbat urtez astero joaten nintzen Oiartzunera. Arte espezialitate asko bezala, oso konstantea da musika. Behar bezala ikasten eta abiada egokian hobetzen ari zarela frogatu behar diozu irakasleari. Aurrerapena sumatu behar du aste batetik bestera. Horrek presioa dakar". Olentzerok ekarri zion lehenbiziko harpa Sanzi. Etxekoek beti babestu izan dutela dio, baita goi mailako ikasketak musikaren ildorik egin nahi zituela esandakoan ere. Begi niniak goian jarri, iraganaz mintzatu da Sanz.

"Magia hutsa da harpa sorbaldan etzan, bi eskuak gaineratik pasa eta besarkatzea"

Haurtzarotik nerabegarorako urteak intentsitate handiz oroitzen ditu Maddi Sanzek. Hezkuntza formaleko ikasketez gain, kontserbatorioan ere aritzen zen, eta harrapatu ikusten zuen bere burua. Argi zuen, ordea, musikak ematen ziola bizia. Begiak itxi eta harpa besoan hartuta irudikatzen zuen bere burua etorkizunean. Hala, batxilergo musikalaren aldeko apustua egin zuen Donostian. Geroztik, musika tresna izan du alboan egunerokoan, bai etxean bai Gasteizko kontserbatorioan; gaur egun, irakasle lanetan.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

Ezin ohiko txistea egin gabe hasi... Askotan egiten didate broma bera. Harpa jotzen dut eta adarra ere bai (barre egiten du). Baina harpa jotzen dut, bereziki. Oso ume nintzela aukuratu nuen: Pirritx eta Porrotxen bideo bat ikusten ari nintzela *-Altxorren bila* zela uste dut-, Olatz Zugasti agertu zen harpa jotzen. Pirata lokartu eta pailazoak salbatu zituen. Orduan esan nuen: "Ama, hori nahi dut".

Gerora, hurrei zuzenduriko kontzertuetara eraman ninduen amak, erabakia ongi hausnartzeko bere ustetan. Nik argi nuen harpa jo nahi nuela. Irungo kontserbatorioan ikasle nintzen ordurako, baina Irunen ez zegoen aukerarik, eta beraz, Oiartzunera joaten hasi nintzen astero-astero. Gogoan dut ilusio handiz idatzi niela Pirritx, Porrotx eta Marimotxi, nire ametsa azalduz. Porrotxek erantzun zidan.

Nola jotzen da harpa?

Bere kodeak ditu, instrumentu guz-

tiak bezala. Orokortua dago harpa-jole gutxi garela pentsatzea, baina ez gara hain gutxi. Askok bidean uzten duten arren, uste baino gehiago gara. Hasieran, behatz bakoitzaren posizioa ikasi behar da, eta belarria egin eta sokak ezagutu behar dira, koloretakoak baitira: gorriak, beltzak eta zuriak, eta soinu jakin bat du bakoitzak. Oso prozesu motela da, egia da, baina polita iruditzen zait. Gaitasunak txertatzen dira gutxika eta progresiboki egiten da. Konstantzia da ikasteko giltza.

Baduzu harparik etxean?

Olentzerok ekarri zidan lehenbizikoa, harpa txiki bat, eta oraindik ere erabiltzen dut. Gerora, ordea, handiago batera pasatu nintzen. Oso garestiak dira eta etxe askotan ezinezkoa da erostea. Musikak, ordea, denon eskura egon beharko lukeela uste dut, eta zorionez filosofia hori dago kontserbatorio gehienetan; horregatik, ohikoa da kontserbato-



"Hezkuntzak askoz ere arreta eta garrantzi gehiago eman beharko lioke musikari. Musikak ez luke mugarik behar, dirutik haragokoa da artea".

rioretako instrumentuak norberarena bailitzan erabiltzea.

Hori jakinda, etxean ditudan bi harpak izugarri ongi zaintzen ditut, kontu oso handiz, eta atera behar izaten ditudanean, kontziente naiz hortzak estutzen ditudala (barre egiten du).

Harpa jotzeaz gain, irakatsi ere egiten duzu, ezta?

Bai, kontserbatorioan. Espainiako Estatuan ez dago unibertsitateko gradu-rik, eta atzerriko herrialde gehienetan bai. Kontserbatorioan sartzea lortu nuen hizkuntza eskakizuna badudalako eta unibertsitate gradu bat ere bai. Irailean zabaldu zitzaidan horretarako atea lehen aldiz Gasteizen –Hegoaldeko hiriburuetan dago kontserbatorioa–, eta hutsetik hasi dut bidea. Ikasleak ere hutsetik hasten dira instrumentuarekin eta oso polita da egiten ari diren bidea. Ez dute musika lengoia ezagutzen eta dena batera zurruputzen dute.

Nolako harremana sortzen da pertsonaren eta harparen artean?

Irakasle lanetan ari naizela nire gaztaroz oroitzen naiz. Izan ere, uste dut, azken batean hiruki moduko harreman bat sortzen dela ikaslearen, irakaslearen eta instrumentuaren artean. Irakasleak funtzio garrantzitsua jokatu du ikaslearen ikasketa prozesuan, eta harpa, berriz, sorbaldan etzaten da, bi eskuak gainetik pasatzen zaizkio eta besarkada gisako bat ematen zaio; magia hutsa da.

Oholtzan ere aritzen zara, musika eta hitza uztartuz.

Euskara oso garrantzitsua da niretzat. Txikitatik gustatu izan zait idaztea, ahoz esatea kosta egiten zaidana atera ahal izateko. Ipuin musikatuak egiten hasi nintzenartzan nengoela, eta Euskal Herrira itzultzean heldu nahi izan nion idazteari. Baina konplikatu izan da. Bertso eskolan eman nuen izena, eta sorta bat idatzi nuen gerora musikatzeko. Aita galdu nuen orduan, eta bolada batean ez nuen harpa ikusi ere egin nahi izan. Bada, uste dut sorta hura izan zela heldulekua; hari esker berriz ekin nion harpa jotzeari.

Gerora, bertso musikatuaren banda sortu genuen eta tarteka oraindik ere aritzen gara. Orkestrarekin jotzeaz gain, musika eta hitza uztartzeko ederra da harpa. Bere soinua eta tamainak berehala harrapatzen du jendearen arreta.

Publiko helduarentzat ala haurrentzat, zer da?

Ipuinak helduekin lantzen ez naiz oraindik ausartu. 40 minutuz eserita egoteko gai denarentzat egiten dut azken batean, adina kontutan hartu gabe. Haur gehienek eusten diote, eta ondoren harpa ezagutzeko aukera ematen diet. Harrigarria da nola errespetatzen duten instrumentua, zer nolako errespetua dioten.

Uste dut hezkuntzak askoz ere arreta eta garrantzi gehiago eman beharko liokeela musikari. Esperimentu oso politik egiten dira gaur egun, baina nik ikusi edota ezagutu ditudan eskola pribatuetan egiten dira, zoritxarrez. Musikak, ordea, ez luke mugarik behar, dirutik haragokoa da artea. ●